



berriak

OSAKIDETZA

2016/11/04

EBENTUALAK: ADI!!

ELAk ikusi du Osakidetzako Erakunderen batean, “aldi baterako zerbitzu zehatzak egiteko” kontratuak luzatu beharrean, kontratu berriak egin dizkietela pertsona horiei. Egoera horretan dauden pertsonen lehen kontratua bukatutzat eman behar dute eta hilabeteko epea dute bukaera hori errekurritzeko.

ELAk Gernikako Ospitalean ikusi du ESko zuzendaritzak, kontratuak bukatzean berauek berri beharrean, inongo abisurik gabe, kontratu berriak egin dituela.

Kasu batzuetan kontratu berriek aurrekoaren izaera bera zuten (aldi baterako zerbitzu zehatzak egiteko).

Beste batzuetan, kontratu berriak bukatu egingo direla argi uzten dute eta lanpostua bakanteen zerrendatik beteko dituztela. Hau da, zeharka langileei kaleratuko dituztela jakinarazten diete.

Erakundeak zuzenean horrela esan ez duen arren, lehen kontratuak bukatutzat eman dituztela ulertu behar dugu eta egonkortzeko eskubidea egikaritu nahi duten pertsonen kontratu-bukaera errekurritu beharko lukete. Errekurtsorako epea oso laburra da, hilabete dago izendapen berria egin zenetik.

Hau izan daiteke Osakidetzaren estrategia berria Europako epaiek eragiten duten egonkortzea ekiditeko. Jatorrizko kontratuak bukatutzat ematen dituzte jendea horretaz konturatu gabe, ondoren erreklamazioak egiteko aukerarik egon ez dadin.

Erabaki honek kontratuak bukatu aurretik egonkortzeko eskaerak martxan jartzeko beharra indartzen dute. Ondoren beranduegi gerta daiteke.

Edonola, ELAk berriz ere dei egiten dio Osakidetzari negoziaketa prozesu bat ireki dezan. Ehunka epaiketa eta horrek ekar dezakeen egoera kaotikoa ekidin nahi dugu. Bien bitartean, dagozkigun erreklamazio guztiak martxan jarri behar ditugu, dagokigun eskubide hori lapurtu aurretik.

**ESKATU ZURE KALTEORDAINA!!
EXIJITU EGONKORTASUNA!!**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA